

noaua



**Erraustegira martxa
larunbatean**

**San Ixidro Egun girotua,
jan-edanaren eta herri
kirolen bueltan**

**“Ipuinak sexu heziketaz
blai” tailerra**

Ainhoa Perez Pragan ari da ikasten

**“Ingenieritza biomedikua
indarra hartzen ari da”**



AURREMATRIKULA

Maiatzaren 9tik 27ra



Administrazioa eta Kudeaketa



Energia eta Ura



Instalazioa eta Mantenua



Fabrikazio Mekanikoa



Elektrizitatea



Hartu hitzordua!!!

943 364600

www.lhusurbil.eus

- * Impermeabilizazioak
- * Isolamendu termikoa
- * Teilatuak
- * Mantenimendua
- * Fatxadak
- * Irisgarritasuna



ERAIKINAK

BIRGAITZEKO ETA

HOBEEKUNTZA

ENERGETIKOA

LORTZEKO

SOLUZIOAK



SOLUZIOAK ZURE ESKU, HEMEN, USURBILEN

Zubiaurrenea Kalea 3, 20170, Usurbil
Tlf: 625077916 | info@bonex.es



USURBIL DÖNER KEBAB

ONDO JAN, ONDO BIZI

Zabalik Gaude

Dastatu zaporea Usurbilgo Döner Kebab-en,
Usurbilgo janari lasterreko jatetxe berri-berrian.

Kokapena: Borda Berri Kalea, 5 - Usurbil

Ordutegia:
Astelehenetik ostegunera (13:00 - 16:30 eta 18:30 - 23:00)
Ostiraletik igandera (12:30 - 23:30)



Telefona

843 675 265
603 609 183



Askien informazio gurea lortzeko, jarraitu gaitzazu
gure Sare Sozialetan



usurbil_dk



Usurbil Döner Kebab



Albisteak iruditan

Elkarteak indarberritu eta harremanak berreskuratzen, covid19-aren ostean

Artzabal Gipuzkoako jubilatutako elkar-teen jokalekuan bilakatu zen iragan astean. Herrialde mailako pentsiodunen arteko txapelketen finalak ospatu ziren maiatzaren 4an, Gure Pakea bilguneak duen egoitzan. Igel edota toka jokoa nahiz mahai jolasetan, karta joko anitzetan lehiatu ziren Gipuzkoako beste eskualdeetatik, Deba bailaratik edota Goierri nahiz Tolosaldeatik gure artera bisitan etorritakoek. Herria ezagutzeko ere baliatu zuten eguna hainbat lagunek.

Goizean txapelketetan lehiatu, eguerdian Artzabal jatetxean bazkaldu eta bazkalostean, sariak banatu zituzten parte hartzaileen artean. Txapelketa anitzen amaierako partidak izanik, saritu taldea ere jendetsua izan zen, ondoko argazkian ikus dezakezuen moduan.

Harremanak zaindu, jubilatutako elkar-teen indarberritu eta parte hartzea sustatu, hor-



Gipuzkoako jubilatutako elkar-teen arteko topaketako sarituak Artzabal atarian.

txe Gipuzkoako bilguneon elkartetik kolektiboa gogor kolpatu duen azken bi urteotako osasun krisialdi osterako dituzten erronkak.

Beti ere aurrera begiratzea helburu izanda, hilaren 4ko topaketan antolakuntzak nabarmendu zenez.

Laburrean

Gorabeherarik ez

Hirugarren astelehenez segidan, 276,60ko intzidentzia zuen koronabirusak aste hasieran Usurbilen. Aurrekoan baino 5 covid19 kasu gutxiago hauteman zituen Osasun Sailak udalerrri honetan iragan astean, guztira 6. Eskualdean gorantz egin dute kasu berrien agerraldiek.

Udal lan deialdia

Kirol teknikaria oposizio-lehiaketa askez aukeratzeko prozesua hautatzeko deialdirako izen-ematea zabalik izango da ekainaren 3ra arte. Telematikoki nahiz udal erregistroan bideratu ahalko da. Informazio gehiago, apirilaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Aginagako txokoak

LH 1-6 mailetako ikasleentzat, ekainaren 22tik 30era, 10:30-12:30 artean. "Zirkua ikusteko aukera izango dute", berrikuntza hau iragarri dute antolatzaileek. Izen-ematea, maiatzaren 20a baino lehen whatsapp mezu bidez telefono zenbaki honetan: 695 723 192 (Aitziber).

noaia

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaia.eus /// www.noaia.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaia.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaia.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Ainhoa Azpirotz

Begien aurrean ez, oroimenean bai

Aspaldian Anaerrekara joan gabe nengoen eta orain dela gutxi izan nintzenean, a zer aldaketa! Banekien egokitzeakotan zirela, baina ez nuen uste jada egina egongo zenik. Ezustean harrapatu ninduen eta kosta egin zitzaidan kokatzea: batetik, aurreko erreferentziak falta nituen –Txinbo astoa, kainaberak... , eta bestetik, aldaketa berriekin despistatuta nengoen –erreka lehen ikusten ez zen lekuetan barrena, bide berriak... .

Denetariko iritziak entzun ditut aldaketaren inguruan: batzuei asko gustatu zaie; beste batzuk lehen baino txukunago dagoela diote; zenbaitek astoa urrutiago dagoenaren pena dute; beste hainbatek artifizialago ikusten dute eta nahiago dute lehenagoko ukitu gabeko natura; beste batzuek naturan gehiegi esku hartu dela diote; beste zenbaiten iritziz erreka oinezkoen bidetik hain gertu egoteak errekararen inguruko faunari eta floriari kalte egingo dio.

Iritzi guztiak darabiltzat buruan bueltaka eta, aldi berean, oroitzapenetan harrapatuta geratu naiz. Lehen esan bezala, pixka bat kosta zitzaidan paisaia berrira egokitzea; baina era berean, denbora gutxian lehen nola zegoen ahaztuta edukiko dut. Segituan ohitzen gara ikusten dugun berrira eta gero propio



“Anaerrekako aldaketen aurrean pixka bat kosta zitzaidan paisaia berrira egokitzea; baina era berean, denbora gutxian lehen nola zegoen ahaztuta edukiko dut”.

AINHOA AZPIROTZ
“Aldaketen aurreko lekuak hor dauzkagu oroimenean, baina begien aurrean ez. Horregatik ahazten ditugu hain azkar”

jarri behar izaten dugu burua aurrekoa gogoratzen, memoria ariketa egiten. Halaxe pasatzen zait herriko beste leku batzuekin ere.

Adibidez, gogoratzen al zarete Eguzkitza baserriarekin? Herriko Ostapetik sartu eta Eroskiko errotondarik ez zegoen orain dela urte batzuk. Intzaren ilea-paindegia eta Ixabel Esnaolaren dendaren artean Eguzkitza baserria zegoen, Intza

parean aldapa beheara jaitsita atarira jaisten ginelarik.

Galtzaragañan, orain BM supermerkatua eta hango etxeak dauden lekuan izugarrizko zelaia zegoen orain dela hiru hamarkada. 1993an Euskaldunon Egunkariaren aldeko festa eguna Usurbilen ospatu zenean, hori dena zelai zen eta kontzertuak entzutera joandako jendez bete zen egun hartan. Elurra egiten zuenean ere leku estimatua zen aldapa oso handia nahi ez zutenentzat; handiagoa nahi zutenek, berriz, Udarregi ikastola dagoen lekuan zuten aldapa ederra, orain ikastolaren sarrera dagoen lekutik hasi eta zezen-plazaren behekalderaino luzatzen zena.

Artzabal inguruan ere zelai

ederrak ziren. Orain ere berdegune ederrak ditugu, baina lehengo zelai eta soroak Puntapaxeraino eta Erreka-txikiraino iristen ziren luze zabalean. Kalezarrerako bidean ez zeuden orain Puntapax kalean dauden etxeak; kalea baino Kalezarrerako bidea zen Puntapax zubia bitartekoa, eta tartean, eskuin aldean iturri bat eta zelai txiki bat ziren. Ezkerraldean, berriz, krabelinez betetako negutegiak.

Eta akordatzeko al zarete Alkartasuna kooperatiba non zegoen? Kale nagusian orain autobus geltokia dagoen lekuan zuen sarrerako atea eta atzean aparkaleku handi bat, orain dagoena baino baxuago eta orain dauden etxerik gabe.

Bordaxoko errotonda ere ez da hain zaharra. Duela urte batzuk errotondako borobilaren partez, Gaztañagako baratzeak, Motzaneak eta Leku-Ederrek hiruki bat osatzen zuten. Eta Optika dagoen etxe horren ordez Motzaneako baratze edo soroa luzatzen zen Antxetaraino. Buruari eragiten jarraituz gero, beste makina bat aldaketa etorriko zaizkigu burura. Oroimenean hor dauzkagu, baina begien aurrean ez. Horregatik ahazten ditugu eguneroan berriak aurrekoaren lekua hartzen duenean.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Komikia



“Esaten ez dutena” azaleratu eta erraustegia geratzeko martxa

Lasartetik erraustegira martxa antolatu dute leragile anitzek larunbaterako, maiatzaren 14an, “Donostiako erraustegiaz... zer ez digute esaten?” aldarripean. Bidea Orioko joaldunek eta Usurbilgo elektrotzarangak girotuko dutela berri eman dute. Errausketaren Aurkako Mugimenduan antolatutako hitzorduarekin bat egin dute Donostia Bizirik, Eguzki, Greenpeace eta Ekologistak Martxan eragileek.

Errausketaren Aurkako Mugimenduko Usurbilgo Taldetik Lasarteko martxara joateko oinez abiatzeko hitzordua jarri du larunbat goizean, 10:15ean Usurbilgo frontoian.

Gardentasun falta

Erraustegia geratzeko galdegiteaz gain, Zubieta gaineko azpiegituraz esaten ez dutena azaleratu nahi dute hitzordu honen bidez. “Erraustegiaren kudeatzaileek eta Gipuzkoako eta EAEko agintariek hainbat gauza ilun ezkututzen digute herritarrei”, salatu dute hilaren 14ko martxaren deitzaileek. Apirilaren 26tik argitzeke dauden arrazoiengatik “erraustegiko bi labeak geldirik daude”, berri eman dute, eta beraz, “ez dakigu zer egiten ari diren zaborrekin”.

Hondakinak erraustearen eraginaz ohartarazi dute beste behin. “Ez digute esaten ‘Zubietako labeetan erretako hondakin tona bakoitzeko zenbat CO2 kopuru isurtzen duten aire-



Maiatzaren 14ko martxaren deitzaileek iragan astean egindako agerraldia. Argazkia: Errausketaren Aurkako Mugimendua.

ERRAUSKETAREN AURKAKO MUGIMENDUA

“Tamalez, erraustegiak ez du konpondu hondakinen arazoa”

ra”. Ezta aipatu herri mugimenduaren esanetan, erretako hondakinen %65a birziklagarria dela edota erraustutuakoaren %23a “Arrigorriaga, Lemoa eta Añorgako porlan fabriketara eramaten dituztela, hor porlanari nahasi eta munduan barrena zabaltzen jarraitzeko”. Gaztelara garraiatzen dituzte bestalde, “tximinietako filtroetan biltzen diren errauts toxiko arriskutsuak”, erretako guztia %3a. Nafarroako Artaxoako planta batera, “Zubietako planta biometanizatuan” geratzen den organiko hondarra”, ez dute eta konpostatzen.

Gaikako bilketan udalek eta herritarrek eginiko ahalegina

“alferrik galdu egiten dutela” ere salatu dute. Gipuzkoako hainbat udalerrietan ia inpropiorik gabe bildutako organikoa, “borondatezko gaikako bilketa daukaten” inpropio gehiago duen konpostarekin nahasten dutela ohartarazten dute.

“Eredu xahutzailea”

Testuinguru honetan, argi dio Errausketaren Aurkako Mugimendua; “herritarrei ezkutatu nahi diete errealtatean sustatzen duten hondakinak kudeatzeko eredua xahutzailea dela, energia eta diru publikoa alferrik galtzen dituela eta herritarren osasuna kaltetzen duela”. Horregatik, agintariek “Ekonomia Zirkularra” ahotan sarritan darabilten arren, Errausketaren Aurkako Mugimendutik agintariei aurpegiratzen die “zuen eremuan benetan zirkularra dena da... diru publikoak poltsiko pribatueta eramateko ibilbidea”.

Bilketa sistema eraginkortzeko eskaera

Errausketaren Aurkako Mugimendutik salatzen dutenez, Gipuzkoak ez ditu betetzen Europaren zuzentarauak. Erraustegiaren kokagunea den Donostiak esaterako, %42ko gaikako bilketa du. Europak 2020rako jarritako %50eko birziklatze mailara ez da heldu eta “urtean 20.000 tona hondakin organiko baino gehiago errefusaren edukiontzira nahasita botatzen jarraitzen” dute. Gipuzkoan sortutako hiri hondakinen %87a birziklagarria da, aldiz %55a baino ez da birziklatzen. Maiatzaren 14ko martxaren deitzaileen esanetan, horrek erakusten du, “inbertsioak benetako gaikako bilketa sistema eraginkorrak ezartzeko baliatu behar direla, eta ez, birziklagarriak diren baliadun hondakinak erretzeko labetarren planta eraikitzen”.

Arazoa konpontzeko

Zubietako azpiegiturak martxan egon arren, “2021ean Gipuzkoan errefus kopurua igo egin da, Sasieta mankomunitatean salbu”, Europatik 2020rako %10 murriztu beharra zegoela ohartarazi arren. “Tamalez, erraustegiak ez du konpondu hondakinen arazoa eta, aldiz, Zubietan eta inguruetan eguneroko ogia da hondakinen errekuntzak eragiten duen kutsadura. Eta agintariek esaten ez diguten arren, errausketaren kalteak munduan barna zabaltzen dihardute”.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

ERAMATEKO!!!

·EGUNEKO MENUA
·KARTA

ARTZABAL (ESKANEATU QR KODEA IKUSTEKO)

BASERRIA · JATETXEA

www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

Antxeta

TABERNA

egunero irekitzen dugu!

·eguneko menua ·asteburuko menua
·karta ·oilasko erreak, pizzak..

JASOTZEKO EDO ETXERA ERAMATEN DUGU!
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44

“Atzerriko herrialde batera joaten gara eta mundu osoko jendea ezagutzen dugu, bertakoa izan ezik”

Txekiar Errepublikan dago Ainhoa Perez Txikiardikoa. Pragan daramatza hainbat hilabete Erasmus programan parte hartzen. Ikasketak amaitzeaz dago, eta NOAUA!rekin izan da esperimentziaren berri emateko.

NOAUA! Zerk eraman zintuen Pragara?

Ainhoa Perez: Irailean iritsi nintzen Pragara, duela hilabete. Erasmus programaren bidez etorri nintzen bertara, eta nire unibertsitate ikasketen azken urtea egiten ari naiz hemen. Azken irakasgaiak egin eta Gradu Amaierako Lanarekin nabil orain jo eta su. Ingenieritza biomedikua egiten ari naiz.

Nolakoa da zure egunerokotasuna Txekiar Errepublikan?

Oso esperientzia ona izaten ari da. Unibertsitateko ikasle-egoitza batean bizi naiz gainontzeko Erasmus ikasleekin. Oso pozik nago, giro bikaina daukagu.

Pragan txekiera hitz egiten dute, baina zuk ingelesez ikasi beharko duzu. Maila bikainarekin joan zinen bertara.

Ingelesa erabiltzen dut unibertsitatean, jakina. Hala ere, egin ditudan lagun asko espainiarrak dira eta ia gehiago praktikatzeko dut gaztelera ingelesa baino. Kanean, Txekiatik kanpokook ingelesa



Ainhoa Perezek Pragan daramatza hainbat hilabete, Erasmus programan parte hartzen.

AINHOA PEREZ

“Ingenieritza biomedikua egiten ari naiz eta gradu amaierako lanarekin nabil orain jo eta su”

erabiltzen dugu, eta kanean asko entzuten den hizkuntza da. Txekiera ikastea oso zaila

da, batez ere, kanpotik etorri eta hilabete gutxi batzuk egin behar ditugunontzat.

Espainiarrez gain, mundu zabaleko jendea ere ezagutuko zenuen.

Leku askotako jendea ezagutzeko zortea izan dut. Oraintxe, ikasle-egoitzan,

espainiarrez gain, argentinarrak, italiarrak, mexikarrak, alemanak, Herbeeretakoak... leku askotako jendea dago. Bigarren seihileko honetan Kanadako jende pila bat iritsi zaigu eta Ertamerika zein Hegoameriketako jendea ere ugari dago.

Erasmusera joatean atzerriko jendea bai, baina gehiago kostatzen da bertako jendea ezagutzen.

Egia esan, ez dugu txekiarrekin harreman askorik izan. Ikasle-egoitzan ez dago ia txekiarrik eta unibertsitatean ere, ikasketak txekiarrez egiten dituzte, guk ingelesez egiten ditugun bitartean. Orokorrean, oso txekiar gutxiarekin harreman du gara. Iritsi berritan, gehixeago elkartzen ginen haiekin, baina orain batere ez. Atzerriko herrialde batera joaten gara, eta mundu osoko jendea ezagutzen dugu bertakoa izan ezik.

‘Tokitan’ atala

NOAUA!n zabaldu dugun atal berri honi ‘Tokitan’ izena ipini diogu. Atzerrian bizi diren usurbildar gehiago elkarrizketatu nahi ditugu txoko honetan. Egoera horretan den herritarren bat ezagutzen baduzu, bidali bere izena gure posta helbidera: erredakzioa@noaua.eus

“Txekiarrak oso hotzak dira baina jende jator asko dago”

NOAUA! Gutxi ezagutuagatik ere, nolabait definituko al zenuke txekiarrak?

Ainhoa Perez: Oso hotzak direla esaten dute, eta estereotipo hori betetzen dela iruditzen zait. Haiek ere onartzen dute hori. Irtsi berritan, aurkezpen

bat egin ziguten herrialdeari buruz eta haien kulturari buruz. Euren burua definitzerako garaian, esaten ziguten txekiarrak hasiera batean hotzak direla, eta lagun txekiarrak egin nahi izanez gero, lehen pausoa guk eman beharko genuela. Eza-

gutzen ez duten jendearengana hurbiltzea ez da oso ohikoa beraien artean. Denda batera joan eta galdu samar sentituz gero, ez espero inor etorriko zaizunik laguntzera edo modu atsegina batean laguntza eskaintzera eskatu gabe. Geure aldetik zer bait

jartzen badugu eta lehen agur hori txekieraz egin, askoz ere emaitza hobekia jasotzeko aukera ematen dute. Noiz-behinka barre txiki bat ateratzea diezaiokezu norbaiti. Estereotipoa hori da, baina jende jator asko ere badago.

“Ekaina arte Pragan egongo naiz eta datorren urterako masterrak begiratzan ari naiz”

NOAUA! Europa erdi-erdian zaude. Hori aukera ona izan da inguruko herrialdeak bisitatzeko?

Ainhua Perez: Bai, oso leku aproposa da edonora joateko. Aukera asko eskaintzen dituen herrialdea da. Trenez bidaia ederrak egiteko aukera eskaintzen du eta hegazkinez ere leku askotara joan gaitzke zuzenean. Bidaia dezente egiteko aukera izan dut: Viena, Norvegia, Budapest, Krakovia, Bratislava... Leku askotan egon naiz. Praga ederki kokatuta dagoen hiria da Europan mugitu ahal izateko. Behin hemen egonda aprobetxatzen ari naiz, zalantzarik gabe.

Zertan da pandemia bertan?

Ni iritsi nintzenean, Txekiar Errepublika hobeto zegoen Euskal Herria baino neurri murriztaileak kontuan izanda. Ez dakit intzidentzia kasuak zenbatean zeuden, baina askoz ere neurri gutxiago eta malguagoak zeuden. Hasiera hartan, unibertsitate barruan ez genuen musukorik behar. Negua iristean, datuek okerrera egin zuten eta neurriak indartu zituzten urria amaieran edo azaroaren hasieran. Orduan, gaueko 22:00etan dena ixten zuten



“Trenez bidaia ederrak egiteko aukera eskaintzen du Pragak eta hegazkinez ere leku askotara joan gaitzke zuzenean”.

AINHOA PEREZ

“Aurten Erasmus egitea erabaki dugunoi pandemiak ez gaitu gehiegi jipoitu eta gure Erasmus esperientzia behar bezala bizitzan utzi digu. Joan den urtekoek ez zuten zorte bera izan”

eta beste hainbat neurri ere jarri zituzten.

Urtarrila amaieran, berriz lasaitu zen kontua eta Euskal Herriko egoeraren antzeko batean jarri ginen: musukoa leku itxietan eta garraibideetan, gauetan dena ireki...

Aurten Erasmus egitea erabaki dugunoi pandemiak ez gaitu gehiegi jipoitu eta gure Erasmus esperientzia behar bezala bizitzan utzi digu. Joan zen urtekoek ez zuten zorte bera izan.

Hilabete batzuk geratzen zaizkizu oraindik Txekiar Errepublikan. Hala ere, zerbait botako duzu faltan etxetik.

Jendea botatzen dut faltan gehien, baina oso gustora nago. Badaude momentu batzuk etxeko goxotasun hori faltan sumatzen ditudanak. Herri giro hori ere hemen ez dago.

Datorren urterako eta hurrengo- goetarako zein asmo dituzu?

Printzipioz ekaina arte Pragan egongo naiz eta datorren urterako masterrak begiratzan ari naiz. Momentuz, nire asmoa datorren urtea ere etxetik kanpo ematea da. Bartzelona daukat buruan; ez dago Praga bezain urrun, baina ezingo nuke egunero unibertsitatetik atera eta etxera etorri. Oraindik dena erabakitzeke daukat. Behin masterra bukatuta eta lan esparruan sartuta, beti izan dut beste kulturak ezagutzeko jakinmina. Kanpoan bizitzan irudikatu dut neure burua sarri. Ikasle izanez, kanpoan esperientzia bat bizitzan ari naiz, eta gustatuko litzaidake lanean ere esperientzia izatea atzerrian. Ez diot denboralditxo bat kanpoan egoteari muzin egiten. Unean unekoa egiten ari naiz eta denborak esango du nora joan eta zer egin.

“Ingenieritza biomedikua indarra hartzen ari da”

NOAUA! Ingenieritza biomedikutik bizitzeko aukera badago Euskal Herrian ala kanpora joan beharko duzu lan egitera?

Ainhua Perez: Nik uste Euskal Herrian indarra hartzen ari den sektoreetako bat dela. Geroz eta enpresa gehiago

daude esparru horretan lan egiten dutenak.

Hala ere, oraindik nahiko sektore txikia da gurean beste eremu batzuetako egoerarekin alderatuta. Unibertsitatean beti esaten digute guk izan beharko dugula sektoreari bultzada bat eman beharko diotenak.

Espainiari erreparatuta, hiri handietan dago lanik gehien eta enpresarik handienak, Bartzelonan edota Madrilen, esaterako. Europan ez nuke jakingo esaten zein herrialde diren garrantzitsuenak, baina aukera gehiago egongo dira eta esperientzia ederrak bizi-

tzeko aukerak ere bai. Estatu Batuak izan daitezke mundu zabalean garrantzitsuenak. Lan munduan murgiltzeko asmotan nabilenean egingo dut ikerketa zabalagoa aukera onenak non dauden aztertu eta erabaki egokiak hartzeko.

Sagardo egunaren zain


Garai hauetan, Sagardo Eguna izaten dute buruan hainbat eta hainbat usurbildarrek, eta duela 25 urte ez zen gutxiagorako. Garai haietan, Sagardo Egunaz gain, oso kontuan izaten zuten lehen jaunartzea ere. Bi herritarrek eman zuten lehen jaunartzeari buruzko iritzia, Koro Zubizarretak alde eta Jose Mari Arzallusek kontra. Sagardo Egunari buruz ere herrian zehar inkestatzea egin zuten NOAUA!ko lagunek eta gehientsuenentzat egun oso

berezi eta gogoangarria zen.

Lana eta enpleguaren gaia ere udaberriaren azken txanpa horretan nahiko azalera aterazten, eta langabezia tasa izugarria ez bazen ere, baziren langabezian zeuden herritarrrak. Udalak, ordea, bi postu eskaintzen zituen: lorazain peoi izateko bata eta igeltsero lanetan aritzekoak bestea.

Irakurzaletasuna ere jomugan jarri zuten, liburutegi zaharrean liburuen kopuruak gora egin bai, baina euskaraz irakurtzera ohituta zeude-

nak ez zirelako horrenbeste. Hurrengo orrietan, Sagardo Eguneko gehigarri berezia plazaratu zuten sagardogintzari buruzko erreportajeak eskainiz. Ondoren, kirolei tartea egin zieten, eta herritarrrak punta-puntan aritu ziren. Aginaga Sagardotegia txapeldun izan zen Kontxan, herriko igerilariak bi domina eskuratu zituzten Zarauzko txapelketan eta gimnasia erritmikoan ere, bakarkako txapeldun batez gain, talde batek urrea eta besteak zilarra irabazi zuten.



1997ko maiatzaren 16ko azala.

Duela 25 urte

NOAUA! 20. zenbakia 1997ko maiatzaren 16an

“Salamancan ere asko jokatzen zen pilotan”

Salamancan honek 82 urte beteko ditu datorren ekainean. Usurbil aldera 51 urterekin etorria, bost seme-alaba eta zazpi biloba ditu Usurbil eta Gipuzkoan zehar banatuta. Bere denbora-pasa gustokoe-na, berriz, pilota da.

NOAUA! Ia bizitza erdia zure herrian pasata, nolatan etorri zinen Usurbila?

Carlos Prados Herrero: Nire seme-alabengatik. Gipuzkoan bizi ziren eta beraiek esan ziguten emaztea (Josefa) eta bioi hona etortzeko.

Zertan lan egin duzu hemen?

Hona etorri eta lehen sei urteetan etxegintzan lanean aritu nintzen. Gero, lorazain pasa nituen beste berderatzi.

Zein da lan gogorragoa?

Etxegintzan pisu handiak eramane behar dituzu, eta lan sufritua da. Lorazainak ere baditu bere arriskuak. Euskal Herri guztian zehar ibili naiz lorategiak txukundu eta belarrak moztzen, eta hori ere ez da lan fina.

Zer dela-eta arriskutsua?

Guk askotan txukundu behar izaten genituen zentral elektrikoetako belardiak, eta orain ez bezala, lehen sega erabiltzen genuen gure lana egiteko. Behin baino gehiagotan ia gelditu gara bertan segak kable elektriko bat jotzeagatik.

Lan asko eta ugari egindakoa zara, beraz.

Dudarik ez egin. Asko ikusitakoa naiz. Soroan, etxegintzan eta lorazain lana egiteaz gain, 1932 inguruan, wolframio meatzean ere lan egindakoa nauzu.

Tartean garai txarrak ere eza gutuko zenituen, 1936ko Gerra Zibila bizitza egokituko zitzaizun.

Bai, hiru urte pasa nituen gerra izugarri horretan, baina ez dut horretaz hitz egin nahi. Inoiz ez dut ikusi gizonen arteko sufrimendu handiagorik.

Lanaz gain, ordea, edukiko duzu beste gustoko denborapasarik.

Bai, noski. Beste ezer baino gehiago pilota ikustea gustatzen zait. Telebistan botatzen di-

tuzten partida guztiak ikusten ditut.

Inoiz jokatu al duzu?

Ez naiz asko jokatutakoa, baina 68-70 urte nituela, zazpitik bidaltzen nuen pilota frontisera.


Noiztik duzu afizio hori?

Hemen ez dakizue, baina Salamancan asko jokatzen zen pilotan, nahiz eta gero eta gutxiago jokatu. Pilotari oso onak izandakoak ere badira, “Kantareak” eta guzti egiten zitzaizkien. Salamancan herri bakoitzak du bere frontoia. Txiki-txikitatik datorkit pilotarekiko zaletasuna.

Eskuz banakako finala pasaden asteen jokatu da, ba al zenekien nork irabaziko zuen?

Pilotan ez dut faboritorik, eta gainera zaila da jakiten nork irabaziko duen, tranpa asko egiten baita mundu horretan. Batak besteari uzten dio galtzen... askotan utzi egiten dira. Lehen egiten zen eta orain ere egiten da.

Pilotaz gain, gustoko beste kirolik ba al duzu?



Carlos Prados Herrero.

Ez, futbola ez zait batere gustatzen, eta hori bakarrik botatzen dutenez, askotan ezin dut telebista ere piztu.

Beste gustoko denbora-pasaren bat?

Irakurtzea, baina ez edozer gauza.

Nahiz eta laster 82 urte bete, sasoi ederrean ikusten zaitugu.

Askok ibiltzen naizelako. Egunean ez dakit zenbat kilometro egiten ditudan, baina asko dira. Behin industria-gunera joan nintzen eta treneko arduradunari esan nion itzuli osoa zenbatean egiten nuen kronometratzeko. Bera ere harrituta geratu zen 9 minututan egin nuela ikusi zuenean.

Energia komunitatearen osaeraz

Beste hainbat udalerrietan jorratzen ari diren bideari jarraituz, Usurbilen ere Energia Berriztagarrien Komunitatea sortzeko gonbita plazaratu zuten Usurbilgo Udalak eta Goieneko Kooperatibak, egitasmo honi buruz maiatzaren 3an Sutegin egin zuten aurkezpen ekitaldian.

Modu honetan, urtebete inguruko prozesuari ekin zioten. Hilabeteotan egitasmo honetako partaide izango diren norbanako nahiz eragileek Goieneko izango dute bidelagun. Eta amaieran erabakiko da Energia Berriztagarrien Komunitatea osatu edo ez.

Talde sustatzailearen eraketa

Ahalik eta parte hartze anitzena bultzatu nahi dute. Usurbilek alor honetan izan ditzakeen gabeziak identifikatzen eta epe ertain nahiz luzerako proiektuak definitzen joan. Momentuz halere, talde sustatzaile



Energia komunitateen egitasmoa aurkeztu zuten iragan astean Sutegin.

bat osatu nahi dute eta gerora hiru azpitalde: arlo juridikoa eta administratiboa landuko duen bilgune bat, proiektuei lotutako bigarren bat eta komunikazio zein dinamizazioari begirako beste bat.

Dagoeneko hainbat herritarrek bat egin dute abian den prozesu honekin. Parte hartzeko aukera ordea zabalik dago. Izena eman

daiteke udal-erregistroan, info@ebkusurbil.eus helbidean edota usurbil.eus atariko orria beteta. Bertan aurkitu dezakezue informazio gehiago, tartean, aurkezpen ekitaldia bidez ikusteko aukera duzue.

Datorren bilera, hurrengo asteartean, maiatzaren 17an beraz, arratsaldeko 18:00etan Udarregi Ikastolako erdiko aretoan.

Abizenen grafia euskalduntzeko kanpaina

“Apelliduak abizendu” kanpaina abiarazi dute berriaz Buruntzaldeko udaleko euskara zerbitzuek. Abizenen grafia euskaratzeko Bake Epaitegira jo behar da (Donostian erregistratuak daudenak hiriburuko Erregistro Zibilera). Dokumentazio hau aurkeztu behar da: udaletxean eskuratu daitekeen errolda-agiria, nortasun agiriaren kopia, jaiotza-agiri literala (Bake Epaitegian eskuratu beharrekoa) eta seme-alabak izanez gero familia-liburua. Bake Epaitegiarekin bideotatik jar daiteke harremanetan: 943 372 336/bakeepaitegia1@usurbil.eus. Kanpaina honi buruzko informazio gehiagorako: buruntzaldea.eus/euskara

BAZKIDEEEN TXOKOA
noaua! euskararen aterpe



EHZ

Uztailak 2,3 eta 4an
Irisarrin izango den
Euskal Herria Zuzenean
jaialdirako
3 eguneko sarrera bikoitza
zozketatuko dugu, maiatzaren 27an



Bazkide egiten bazara, zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / elkarte@noaua.eus

Ane Zinkunegi harri-jasotzailea: “Harri kubikoa da guztietan zailena”

Gero eta emakume gehiago ari dira herri kiroleetan. Gure gaurko gonbidatuak harriak altxatzen ditu. Pixkanaka bidea egiten ari bada ere, aurreiritziek pisu handia dute oraindik. San Ixidro Egunean plazan lehiatuko da.

NOAUA! Nondik datorkizu harriarekiko zaletasuna?

Ane Zinkunegi: Etxean herri kirolak beti izan ditugu presente. Nire aita baserritik dator eta, ikusle gisa bada ere, beti izan dira gure bizitzaren parte. Due-la urte pare bat, Emarriren eskutik 3.800 kiloko harri proba egin zuten Usurbilgo plazan. Harriari tiraka, 22 emakumez osatutako taldea elkartu zen eta nik ere hartu nuen parte. Asko gustatu zitzaidan giroa, eta harriari lotuta jarraitze-ko aukera eman zidatenean, baiezkoa eman nuen.

Harriak eta harriak daude. Zein duzu gustukoena eta zein izan da orain arte zailena egin zaizuna?

Zalantzarik gabe, zilindrikoa dut gustukoena. Zailena edo desatsegina ordea, orokorrean denok ados egoten gara honekin; kubikoa. Teknika aldetik lan gehiago eskatzen du eta zailagoa izaten da.



Pandemiaren okerrera igaro dela dirudi. “Plaza askotatik deitu digute erakustaldiak egiteko”, azaldu digu Zinkunegik.

ANE ZINKUNEGI

“Dena teknika kontua da. Gogo pixka batekin lor daiteke harri-jasotzaile izatea, inongo zalantzarik gabe”

Harriak ahalegin fisiko handia eskatzen du. Ondo neurtu beharko dira entrenamenduak eta lehiaketa egunak, ezta?

Normalean, astean bitan entrenatzen dugu. Astelehen eta ostegunetan izaten da hori. Tartean deskantsatzeko egunak behar izaten dira entrenamenduen artean. Horrez gain, neure kontutik ere entrenatzen dut, ‘kardio’ pixka bat eginez edo mendira joanez. Horrek guztiak ere harria jasotzen laguntzen du.

Gaztea zara. Txapelketa baten

bezperan ordea, parrandarako tarte gutxi izango duzu.

Asteburuan plazan erakustaldia tokatzen bazaigu, normalean ez dugu parrandarik egiten. Geure burua zaindu beharra daukagu eta gogor entrenatu beharra ere bai. Plazako lana tokatzen zaigunean, entrenamendu bakarra egiten dugu. Modu horretan, indarra gorde egiten dugu plazarako eta nekerik gabe joaten gara plazara.

“Pandemiarekin txapelketa asko bertan behera geratu ziren”

NOAUA! Pandemiak zein neurritan baldintzatu du zure kirol jarduera? Dagoeneko bueltatu zarete pandemia aurreko egoerara ala oraindik ez?

Ane Zinkunegi: Pandemiagatik arazoak izan ditugu. Plaza asko bertan behera geratu dira, baina pixkanaka lehengora itzultzen ari gara. Mo-

mentuko aurreikuspenak onak dira eta plaza askotatik deitu digute erakustaldiak eta txapelketatxoak egiteko.

Plazan, lehiakortasun handia dago harri-jasotzaileen artean ala lagun giroan aritzen al zarete?

Batez ere, lagun giroa nagusitzen da. Elkarri laguntzen dio-

gu. Egia da, lehia hori ere bada-goela, baina lehia sana izaten da. Elkarri lehia luzatzen diogu, modu horretara hobetu ahal izateko eta erronkak izateko. Hala ere, lagun giroa da nagusi.

Lur Errekondo hasi da orain. Zein aholku emango zenioke, bera bezala, harria jasotzen hasteko tentazioa izan de-

zakeen gazte bati?

Gogoia eta grina baditu, aurrera egiteko. Askotan aurreiritziak izaten dira. Adibidez, emakumeoi bularreko mina izango dugula esaten digute edo pisu gehiegi izango dela. Dena teknika kontua da, eta gogo pixka batekin lor dezakete inongo zalantzarik gabe.

“Usurbilen erakustaldi bat egitea gustatuko litzaidake”

NOAUA! Uda partean, jaien bueltan, erakustaldi ugari izaten dira. Inoiz aritu al zara Usurbilen harria jasotzen?

Ane Zinkunegi: Usurbilen harri-tiran ibili izan naiz, bai, baina harria jasotzen behin ere ez.

Santixabeletakoa plaza egokia litzateke?

Santixabeletan herriko plazan, edota San Joanetan Kalezarreko plazan. Herrian erakustaldia egingo dugu igandean.

Herri kirolak oso maskulinoak izan dira. Badirudi gauzak aldatzen ari direla. Eta zaleak, herri kiroletako zaleak, zer-nolako harrera egin die emakumei?


Nabari da miresmena, batez ere. Ikusleen aldetik miresmena sumatzen da, baina baita harridura ere. Plazan emakume bat ikusteak harritu egiten du oraindik ere.

Aurreiritziak hor daude hala ere, bularreko mina sentituko dugula pentsatzen dute maiz. Gizonezkoetan ez da horrenbeste atzematen harridura hori.

Pixkanaka egiten ari garen bidea da. Geroz eta emakume gehiago ari dira harria jasotzen edo herri kiroletan. Plazakoa aldatzen ari den jardura da.

Zu aritzen zaren mailan aritzeko, gaitasun bereziak behar dira. Baina prestaketa lana ere oso garrantzitsua izango da. Zure jardueran, zer nolako garrantzia dute entrenatzaileek?

Nire garapenean laguntzeko Joseba Ostolaza dut entrenatzaile. Garrantzia handia izan du. Hark erakutsi dit nola egin behar dudana, zer egin behar dudana, nolako tek-



“Haur Hezkuntza eta Automoziua ikasi nituen eta orain automoziora bideratu dut nire ogibidea”.

ANE ZINKUNEGI

“Joseba Ostolaza entrenatzaileak erakutsi dit zer egin behar dudana, nolako teknika erabili...”

nika erabili... Pazientzia handia izan du. Hark badaki zein

momentutan nagoen, zenbat estutu behar nauen eta horrek aurrera jarraitzeko gogoia ematen du. Lan bikaina egiten du, egia esan.

Herri kiroletan gutxi izango dira profesionalak. Zure kasuan, zer ari zara ikasten edo

zertan ari zara lanean une honetan?

Nik orain kamioi tailer batean egiten dut lan. Ordezko piezekin egiten dugu lan. Haur Hezkuntza eta Automoziua ikasi nituen eta orain automoziora bideratu dut nire ogibidea.

Laburrean

“Usurbilgo txoko kuttun bat? Kalezar”

1. Zenbaki bat.
8.

2. Kolore bat.
Gorria.

3. Kirolari bat.
Joseba Ostolaza.

4. Plaza bat hautatu ezazu.
Aiako plaza.

5. Pelikula bat edo telesail bat.
Akelarre.

6. Liburu bat.
Harria (Juan Manuel Uria).


7. Abesti bat.
Zure argia (Su ta gar).

8. Sare sozial bat.
Instagram.

9. Usurbilgo txoko kuttunena zein duzu?
Kalezar.

10. Santixabelak ala Sagardo Eguna?
Sagardo Eguna.

11. Oporretarako toki bat aholkatuko diguzu?
Kuba.



Irudi engainagarriak

1etik 10era zenbatuta dauden zati hauetatik erdiak engainagarriak dira, hau da, ez daude irudi nagusitik hartuta. Bereiz itzazu onak eta engainagarriak.

Zenbat?

Bide batez, zenbat saguzar ikusten dituzu irudi handian?

Hamaika ikustekoak

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamaika dira guztira.





Zein da zein?

Hegazti guztiei 'txori' esatea ez da oso zehatza, ezta? Lotu txori bakoitzari dagokion izena.



Hizki-Marrazki

ALFABETOA



Sudokua

Saia edo putrea hegazti sarraskijalea da, oso ezaguna. Bete itzazu hutsuneak PUTREA hitza osatzen duten hizkiez (P, U, T, R, E eta A). Gogoratu hizkiek behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Handitik txikira

Ordена itzazu txitak handitik txikira, hau da, handienari 1 zenbakia emanez eta txikienari 6.

“Onartu beharra daukat pixka bat urduri nagoela, baina fisikoki ondo”

San Ixidro Egunerako aurreikusitako ekitaldien artean, herri kirolak izango dira ikusmira handiena sortuko dutenetako bat. Izan ere, bi herritar arituko dira harria jasotzen, emakumeak biak: Ane Zinkunegi Hernandez eta Lur Errekondo Sola. Ane Zinkunegiren elkarriketa aurreko orrietan dago irakurgai, eta honako honetan, berriz, Errekondoren uste eta nahiak bildu ditu NOAUA!k Usurbilgo erakustaldiari buruz.



Lur Errekondo Sola harri-jasotze erakustaldi batean.

NOAUA! Usurbilen arituko zara lehen aldiz harria jasotzen. Zer moduz zaude fisikoki?

Lur Errekondo Sola: Txapelketa izan genuen joan zen asteburuan, eta harri berberekin arituko naiz Usurbilen ere. Prestaketa lanak ondo doaz, eta uste dut egoera onean egongo naizela Usurbilen behar bezalako erakustaldia egiteko. Onartu beharra daukat pixka bat urduri nagoela, baina fisikoki ondo.

Ingurukoak, familia zein lagunak ere plazan izango dira animatzen? Ohitura dute erakustaldiak ikustera joateko?

Bi erakustaldi baino ez ditut egin, eta hori horrela izanda, nik uste

LUR ERREKONDO
“Prestaketa lanak ondo doaz, eta uste dut egoera onean egongo naizela Usurbilen behar bezalako erakustaldia egiteko”

herriko plazara jendea gerturatuko dela gure jardura ikustera. Txapelketako finalean izan ziren kuadrilako lagunak, herritarrak eta senide batzuk animoak emateko. Iraetan izan nintzenean ere, taldeko batzuk hurbildu ziren nire lana ikustera. Herrian bertan izanda, jende asko hurreratuko dela uste dut.

Erakustaldirako zein harri prestatu dituzue? Edo badakizue zein izango diren egin beharrekoak?

Erakustaldia baino lehen gure artean hitz egin eta zein harri eraman erabakitzen dugu. Urdanetan, adibidez, erakustaldi bat egin genuen eta bertan bi taldetan banatu ginen: bi harri eta bi aizkora. Lehiaketa modura egin genuen, nork lehenago amaituko. Beste aukera bat izan daiteke harri batzuk hartuta 2 minutuan ahalik eta altxaldi gehien egitea. Ez agian txapelketa batean bezain gogor, baina lan handia izaten da. Badaude aukera gehiago ere. Nahi bes-

te harri atera eta igoaldi batzuk egin erakustaldia egiteko. Harri-jasotzaileok entrenatzailearekin adosten dugu zer eta nola egin, eta hori entrenatzen dugu erakustaldi horretarako.

Usurbilerako zerbait aurreikusita daukazu?

Igandeko txapelketako harri berdina erabiltzea da asmoa. 63 kiloko zilindroa, kubikoa eta bola.

Ane Zinkunegi herritarra izango duzu aurkari. Nola ikusten duzu bera?

Oso ondo. Azpeitiako txapelketan egin genuen topo, eta beste txapelketaren batean ere biok parte hartu dugula uste dut. Aurkari ona iruditzen zait eta gainera, herrikoa izanda beste ilusio batekin hartzen dira txapelketak.

Nork irabaziko du?

Ez dakit. Ez dakit zein harriekin joango den, baina iruditzen zait nireak baino txikiagoak eramango dituela, eta beraz, konparaketa egitea zaila da. Ez da txapelketetan bezala izango. Haietan denok pisu bereko harri berak altxatzen ditugu, baina Usurbilgoa erakustaldia izango da eta ezberdina da.

“Perfekzionista naiz”

NOAUA! Erakustaldi gehiago ere badituzu aurreikusita datozen hilabeteotan?

Lur Errekondo: Bai. Printzipioz ekainaren 4an txapelketa bat izango dugu eta emaitza onak lortuz gero, ekainaren 5ean finala jokatu beharko dut. Erakustaldi dezente ere baditugu aurreikusita udarako festen testuinguruan, eta txapelketei dagokienean, Igeldo Harria eta Zarauzko BiHarri txapelketak izango ditugu.

Zer-nola ikusten duzu zeure burua?

Fisikoki ondo ikusten naiz, baina badakit oraindik teknika landu beharra daukadala. Perfekzionista naiz eta lan gogorra egiten ari naiz teknika perfektuaren bila eta alde horretatik asko irabazten da. Indarra ere badut eta teknika nahiko txukun hartuta daukat. Onenen mailan aritzeko oraindik pixka bat falta zaidala uste dut, baina lanean jarraituko dut hori lortze aldera.

San Ixidroko proba

Maiatzaren 15ean 18:00etan hasita plazan ospatuko den San Ixidro Eguneako harri-jasotze saioan, antolakuntzak aurreratu duenez, Lur Errekondo Solak hiru harri altxako ditu: 63 kiloko zilindroa, 63 kiloko kubikoa eta 63 kiloko bola. Lehiakide izango duen Ane Zinkunegik 50 kiloko zilindroa, 50 kiloko kubikoa eta 50 kiloko bola.

Segidan, Hodei “Izeta IV” eta Jakes “Izeta V” lehiatuko dira.

Lehenengoak 125 kiloko zilindroa 113 kiloko kubikoa eta 100 kiloko bola altxako ditu. Bigarrenak “pentatloia egingo du”, iragarri dute antolatzaileek. “40 kiloko bola 10 aldiz, 150 kiloko harria giza-probakoa plaza bat, 55 ontzako egur bat aizkora, 25 kiloko txingak 2 plaza eta 5 buelta korrika”.

Trikitilariak, bertsolariak, haiketakoak, aizkolariak edota bazkaria maiatzaren 15ean. Egitaraua “Agenda” atalean.



Herriko plazak dantzaleku bilakatu zituen 3. Dantzari Txiki Egunak.



Ikus-entzuleak ere dantzari, Orbeldik antolaturiko 5. Dantzari Topaketan.



Beasain, Igorre eta Iruñeako taldeak bisitari, 5. Dantza Topaketan...



... eta Hernani, Zarautz, Oiartzun eta Urnietakoak 3. Dantzari Txiki Egunean.



Artzabalgo plaza erromeriarena Ttipikakoekin, maiatzaren 7an.



Orbeldi, 5. Dantza Topaketako nahiz 3. Dantzari Txikiko anfitrioiak.



Dantza giroak inguratu du herria aurreko bi larunbatetan.



Kalejirek abiarazi zituzten, dantzari heldu nahiz gaztetxoek topaketak.



Orbeldiren asteotako ekitaldiotako irudi gehiago, noaua.eus atarian.



Ttipikak gidaturiko erromeria, 3. Dantzari Txiki Egunaren agurrean.

OSASUN GIDA 2022



USURBIL OPTIKA

Bigarren lente pareia doan:
lente progresiboetan,
irakurtzeko lenteetan
eta ikus-urruneko lenteetan

2. lente pareia doan

2x1

PROGRESIBOETAN
IRAKURTZEKOETAN
IKUS-URRUNEKOETAN

Zubiaurrenea, 10

☎ 943 370 269 • 675 708 654



Iturralde botika

Tomas Iturralde botika

33/22 PEZ

- Dosifikazio sistema pertsonalizatua
- Dermofarmazia
- Produktu homeopatikoa
- Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

RPS: 19/22

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL

zenta

ORTOPEDIA BAT BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure
autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen salmenta eta alokairua.
- Etkez-etxeko zerbitzu tekniko espezializatua.
- Etxebizitzaren egokitzapena.

www.zenta.es

Osakidetzarekin
hitzarmena

Errekalde 59, Donostia 943 105 205

Kima

MASAJE LEKUA

• Kirol eta terapeutiko masajeak

Txirrindulariaren azterketa
biomekanikoa

☎ 943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

943 11 09 54

etorri zaitez zure oinen eta posturaren
azterketa bat egitera!

sustraitu osasuna oinetatik

Maiatzeko horoskopoa

Hitzak: Barretartia. Irudiak: Ainara Azpiazu Aduriz Axi.

Puntapaxeko sorginaren EROskopoa

**ARIES**

Udaberriko giroak odola aztoratzen dizu, eta hilabete honetan norbait interesgarria eza-gutzeko aukera izango duzula diote izarrek.

Hileko aholkua: badaezpada desodorantea eman, laguntza osoa eskertzekoa izango duzu.

**CANCER**

Joseba Sarrionandia Usurbilera dator eta urduri zaude hainbeste miresten duzun idazlea bertatik bertara ikusiko duzulako.

Hileko aholkua: Baina gero ez lotsatu!

**LIBRA**

Oraindik arraroa da pertsona batzuen aurpegi osoa ikustea.

Hileko aholkua: Maskarilla faltan botatzen duzu barre faltsuak ezkutatzeke, ezta?

**CAPRICORNIUS**

Askotan ez ditugu gertu ditugun altxorak estimatzen.

Hileko aholkua: Hilabete honetan Salvatore elizan eskainiko duten organo-kontzertua ezin duzu galdu.

**TAURUS**

Urteek ez dute barkatzen eta dagoeneko gaztaroa atzean uzten ari zara.

Hileko aholkua: Nola dakidan? Zartagin berri bat eskatu duzulako opari gisa!

**LEO**

Gauza berriak ikasteko gogoia izango duzu datozen asteetan. Garai aproposa da beti atzeratu duzun hori egiteko.

Hileko aholkua: Azkenean txalaparta jotzen ikasiko duzu!

**SCORPIUS**

Aspaldi honetan triste zabilta. Planeten lerrokadurak dio garai alaiago batean sartuko zarela orain.

Hileko aholkua: Pozari aukera bat eman behar zaio!

**AQUARIUS**

Festa-giroa sumatzen hasi zara dagoeneko eta lanean hasi behar duzu prest egoteko.

Hileko aholkua: Hasi festetako buruhandietan ateratzeko entrenatzen!

**GEMINI**

Azkenean Sagardo Eguna ospatu ahal izango duzu!

Hileko aholkua: Horrek ez du esan nahi frontoiko sagardo guztia edan behar duzunik, ados?

**VIRGO**

Zure burua gehiegi estutzen duzu, izan ere, inor ez da gai beti indartsu egoteko.

Hileko gomendioa: Denok gara ausartak arrautza oliotan frijitu behar dugun arte!

**SAGITARIUS**

Dagoeneko bikini operazioarekin hasi dira matraka ematen.

Hileko aholkua: Hondartzara joateko soilik zure gorputza den bezalakoa eta bainu-jantzia behar dituzu. Eta nahiago baduzu, biluzik!

**PISCIS**

Maiatza loreen hilabetea da eta bizipoza ematen dizute.

Hileko aholkua: Kontuz zer usaintzen duzun, erleren bat lanean egon daiteke barruan eta!

Otar-Goxo
Elkagaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

txirriStra
TABERNA
-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

“Egunerokoan, jolastea eta kirola egitea ez da haurren kontua soilik”

Hurrengo ikasturterako matrikulazio epea irekitzeaz dute Zirimararen. Besteak beste, 0-6 urte arteko haurrentzat eta haien senideentzat. Aurtengo partaideen artean dira lerrootako gurasoak.

NOAUA! Nolatan hasi zen zuen hartuemanan Zirimararekin?

Aitor Eizagirre: Lehendik eza gutzen nuen proiektua, oso interesgarria iruditzen zitzaidan; kirola aisialdirako, ondo pasatzeko baliatzea, ez modu lehiakor batean. Egokiera ikusi eta familian hasi ginen.

Naiara Ezeiza: LH-ra heltzea itxaron gabe, umeei familian denok elkarrekin parte hartzeko aukera ikusi eta hasi ginen.

Zein da Zirimarak eskaintzen duen balio erantsia?

N.E.: Familian denok parte hartzea ahalbidetzen digu. Astero denok elkarrekin jolasten eta ondo pasatzen egoteko unea da.

Zer rol dute familiak?

N.E.: Egunerokoan, jolastea eta kirola egitea ez da haurren kontua soilik. Familia mailan egin dezakegun zerbait da, nahiz eta normalean horretarako tarterik ez den hartzen.

Zirimara aisialdirako aukera bat izan liteke beraz.

A.E.: Gure garaian gurasoek gu



Aitor Eizagirre eta Naiara Ezeiza, “Zirimara Familia” egitasmoan parte hartzen ari diren gurasoetako bi. Familia aisialdi tartearen bueltan batzea ahalbidetu die Zirimarak amaitzeaz duten ikasturte honetan. Jolasen bidez kirola eginez, eguneroko eginbeharrak alboratu eta seme-alabekin tarte atsegin bat bizitzea.

ZIRIMARA FAMILIA “Familian denok parte hartzea ahalbidetzen digu. Astero denok elkarrekin jolasten eta ondo pasatzen egoteko unea da”

apuntatzen gintuzten jarduera ezberdinetan baina ez zuten kirolik egiten. Une honetan ikusten da guretzat ere onuragarria dela kirola egitea; guk ere eginez, eta egiten dugula erakutsiz.

Zuen parte hartzeak zer eragin

du haurrengan?

N.E.: Gurekin batera jolasteko une bat dela konturatzen dira.

A.E.: Gure egunerokoan beti ditugu eginbeharrak. Zirimaran zer egin proposatzen digute, zentratuta zaude horretan, ordubate horretan gainerakoa alboratzen duzu.

N.E.: Aitzakia bat ere bada nork bere buruari ere kirol pixka bat eginarazteko. Adin eta guraso anitz daude.

Saio batean zer egiten duzue?

A.E.: Azken saioan adibidez, kore ezberdinetako konoak saka-

banatu eta beraiek esandako koreak biltzen joan behar genuen familiak.

N.E.: Sarritan gure haurtzarako jolasen aritzen gara. Helburua, mugimendua, psikomotrizitatea, irudimena landu eta familian ondo pasatzea da.

A.E.: Tokia ere oso egokia da gainera.

Zerbait aldatuko zenukete?

N.E.: Aurrera begira ondo legoke kalean ekintzaren bat egitea.

A.E.: Jarraitzea nahi genuke noski. Animatu daitezela familiak probatzera.

Zirimaran izen-emateko epea zabaltzeaz

Egunotarako antolatu dituzten ate irekien saioen ondotik, 2022-23 ikasturterako izen-ematea zabalduko dute Zirimaran maiatzaren 16tik 27ra. Online apuntatu behar da eta ordainketa egin, aurreko aldizkarian Zirimararen sustatzaileek jarritako iragarrian agertu zen moduan. Kon-

tuan hartzeko bi ohar: “Eskola Kirolan parte hartzeko derrigorrezkoa da Oiaro Kiroldegiko bazkide izatea, izan norbako modalitatean edo familia modalitatean”, ohartarazi du antolakuntzak. Gogoan izan baita, Kiroldegiko abonamendu honi begira udal hobariak eskuratu daitezkeela.

Eskaintza egokitua

Ziklo edo adin tarte bakoitzera egokitutako jarduerak eskaintzen ditu Zirimarak. LH 1 eta 2 mailetan ikasten ari direnentzako esaterako, jolas hezi programa, psikomotrizitatea, natur jarduerak, saio bereziak eta familia planak. Jolasak, kirol alternatiboak, taldeko

nahiz banakako kirolak, natur jarduerak, saio bereziak eta familia planak LH 3-4 mailetako gaztetxoentzat.

Eta 0-6 urte artekoentzat Zirimara familian bizitzeko aukera; gorputz mugimendua, familia hezkuntza, jarduera fisikoa familian, jolasak...

Ipuinen bidetik, sexualitatea lantzeko tailerra gurasoentzat

Maiatzaren 17an eta 24an sexu heziketa tailerra eskainiko du Elene Jimenezek Sutegi Liburutegian. 2-7 urte arteko haurren gurasoei edo laguntzaileei zuzendutako tailerra izango da sexualitatea zaindu eta zailantzak argitzeko balioko duena. Izen-ematea zabalik dago liburutegian bertan eta haurren zaintza zerbitzua ere eskainiko dute behar dutenentzat. Elene Jimenezekin izan da NOAA! tailerraren nondik-norakoak ezagutu asmoz.

NOAUA! Haurren sexu heziketaz hitz egingo duzue bi saioetan. Noiz hasi behar luke guraso batek haurrekin sexualitatearen gaia lantzen?

Elene Jimenez: Nahita nahiez ari gara ideia batzuk helarazten, egoera batzuen aurrean jokaera bat izaten edo beste bat. Azken finean, begiratu behar da pixka bat zer esaten diegun haurrei. Haurrek ere batzuetan galdera oso zehatzak egiten dituzte aurrez inolako abisurik eman gabe: zer egiten du Ekainek tripan? Nola iritsi da tripara? Lagun batek esan dit sexu harremanak izatea hau dela... Gero,



Liburutegiarekin elkarlanean antolatu du Sexu Aholkularitza Guneko ardura-dun Elene Jimenezek, "Ipuinak sexu heziketaz blai" saioa.

ELENE JIMENEZ

"Begiratu behar da pixka bat zer esaten diegun haurrei. Haurrek ere batzuetan galdera oso zehatzak egiten dituzte"

bat-batean galdetzen dute hau neska edo mutila den. Kontu hauen inguruan nola erantzun jakitea garrantzitsua da. Hilekoaren gaia ere beti tartean izaten da; ikusten dute kulerotan odola eta izutu egiten dira. Medikuak izatera ere jolasten dira beraiek ere. Ume txikiek gozatu egiten dute beren alua laztantzen eta ez dakizu leku aproposa izan daitekeen edo ez

diozu moztu nahi, baina aldi berean sentitzen duzu moztu behar hori.

Nola lan daitezke gai hauek haur txikiekin?

Horrelako gertaeren aurrean batzuetan ez dakigu erantzuna ematen edo gaiari berriz heldu nahi diogu. Badaude ipuin batzuk horren inguruan lasaitasunez eta patxadaz hitz egin ahal izateko. Erabaki bat hartu bere adinarekin aproposa zer izan daitekeen aztertzeke.

■ Informazio gehiagorako:

Kale Nagusia, 43 behea
697 919 516

sexuaholku@usurbil.eus

"Tailer hauetara jende asko hurbiltzen da"

Zein ondorio dezake gurasoek gaia naturaltasunez lantzeak edota hala ez egiteak etorkizunean?

Nolabaiteko komunikazio harria baldin badago eta eteten ez bada, edozein uneetan bizi-penak eta zalantzak errazago partekatzen dituzte haurrek gurasoekin. Azken finean, sexualitatea beste edozein ezaugarri bezala landu egin behar da eta espazioa ematen bazaio hitz egin ahal izateko, bizipe-

nak gehiago partekatzen dira eta haurrek babes sententzia gehiago izaten dute.

Guraso askok sexu heziketaren gaia eskolan baino ez dela landu behar uste dute.

Egun, uste dut gutxiengoak pentsatzen duela horrela. Usurbil txikia da eta orain ematera goazen tailer antzekoetara jende asko hurbiltzen da. Beste kontu bat da, eta batzuetan gertatzen da, beldu-

rra sentitzen dugula arriskuen aurrean. Ikusi beharrean sexualitatea gure ezaugarri bat dela, neska edo mutila izateko modu horiek potentziatu behar direla nire izaeraren parte izanda. Orduan, normalean, kezka edo larritasunak beranduago agertzen dira. Beranduago horretan, ez badugu aurretik komunikazioa behar bezala landu, haurrak 12 urterekin ez dute gurekin hitz egin nahi izaten.

"Adin tarte honetan, oso pentsamendu zehatza izaten dute"

Haurrei hau guztia txikitatirik irakastea komeni da?

Oso txikiak direnean indartu egin behar da identitatea eta zertan datzan ulertarazi. Gurasoek ezagutzatik eta lasaitasunez egin beharreko lanaren parte da hori, babestu eta bidean lagundu ahal izateko. Adin tarte honetan, oso pentsamendu zehatza izaten dute. Gehienbat, gertuko testuinguruetan ikusten dutena identifika dezakete. Zortzi urtetik aurrera, pentsamendua zabaldu egiten da eta gauzak modu batekoak edo beste-lakoak izan daitezkeela ikusten dute; abstrakzioarako bidea dago.

Kozkortutako haurrak badi-tugu jada, zer egin dezakegu hemendik aurrera landu ahal izateko?

Guk tailerrean ez dugu 7 urtetik gorako haurrei buruzko lanketarik egingo. 8-11 urte artekoekin hitz egin dezakeguna oso ezberdina da. Ideiekin askoz gehiago jolas dezakezu, elkarrizketa konplexuagoak izan... Orain egingo ditugun bi tailerretan fokua jarriko dugu ipuinetan, irudietan, galdera-erantzunek nolakoak izan behar luketen... Azken hauek zortzi urtetik aurrera konplexuagoak dira.

Sexu informazio bulegoan baduzue zerbitzuren bat, behar zehatzak dituzten guraso edo pertsonentzat?

Sexu informazio bulegoak badu tarte bat aholkularitzara zuzendua. Guraso talde bat hurbilduko balitz gai jakin bat nola landu ikasi edo materiala nahi duena horretaz hitz egiteko edo dena delakoa, gu prest gaude laguntzeko. Liburu-zerrendak badiugu gai eta adin tarteen arabera sailkatuta eta gu prest gaude behar diren azalpen guztiak emateko.

Garaipen bat eta neurketa bat etenda, Usurbil K.E.-ren asteburu gazi-gozoa

Arratsalde gazi-gozoa maiatzaren 7an Oiarde Kiroldegian Usurbil Kirol Elkartearentzat. Garaipen bat eta ezinbestean bertan behera utzi behar izandako partida baten berri lerrootan.

Gazitik hasteko, senior mutilen eskubaloit taldea Gipuzkoako Kopako neurketa jokatzekoa zen Ereintza taldearekin.

Usurbil K.E.-tik berri eman dutenez ordea ezin izan zuten partida ospatu, "Gipuzkoako Federazioko epailerik agertu ez delako". Antza ez da kontu berria. "Tamalez ez da aurten gertatu zaigun lehen aldia. Azalpenen zain geratzen gara, honek ezin baitu honela geratu", ohararazi du Usurbil Kirol Elkartek.



Usurbil K.E.-ren irudian alebin mutilak, Gipuzkoako Kopa irabazi berrikan.

USURBIL KIROL ELKARTEA

"Azalpenen zain geratzen gara, honek ezin baitu honela geratu"

Gipuzkoako txapeldunak

Iragarria zegoen senior mutilen eskubaloit partidaren

aurretik bizi izan zuen Usurbil Kirol Elkartek eguneko une gozoa. Alebin mutilek Gipuzkoako Koparen finala jokatu zuten joan den larunbatean.

Eta baita irabazi ere. Pulpo taldekoekin izandako neurketan 23-13 nagusitu ziren usurbildarrak.

Andatza Egunekoen eskertza

Harrera beroa egin zioten herritarrek Andatza Egun girotuaren itzulerari. Antolatzaileek eskertza mezu hau helarazi digute.

Eskertza

Andatza Eguna antolatzen dugun taldearen partetik, eskerrak eman nahi genizkieke; alde batetik, Usurbilgo Udalarri, Saizar Sagardotegiari urtero bezala eta aurtengo maiatzaren 1ean Andatzako tontorrera igo ziren guztiei, mendia nola zaindu behar dugun eredugarriak izan zirelako. Festa bukatu eta dena jaso genuenean, ez genuen ontzietatik kanpo inolako hondakinik jaso behar izan. Arrazoi bat gehiago hurrengo urtean ere indartsu antolatzen jarraitzeko.

Zorionak eta mila esker Andatzako tontorrera hurbildu ziren guztiei.

Plazan Bazan, 12/13 orrialdeetako soluzioak

Irudi engainagarriak

Itetik 10era zenbatura dauden zati hauetatik erdiak engainagarriak dira, hau da, ez daude irudi nagusitik hartuta. Bereiz itzazu onak eta engainagarriak.

Zenbat?

Bide batez, zenbat saguzar ikusten dituzu irudi handian? 10 dira.

Hamaika ikustekoak

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamaika dira guztira.

Zein da zein?

Hegazti guztiak 'txori' esatea ez da oso zehatza, ezta? Lotu txori bakoitzari dagokion izena.

Hizki-marrazki

Jarri marrazki bakoitzari dagokion hizkia eta zer dioten jakingo duzu.

Sudokua

Saia edo putrea hegazti sarraskijalea da, oso ezaguna. Bete itzazu hutsuneak PUTREA hitza osatzen duten hizkiez (P, U, T, R, E eta A). Gogoratu hizkiek behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

Handitik txikira

Ordna itzazu txitak handitik txikira, hau da, handienari 1 zenbakia emanez eta txikienari 6.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trastelekua, balkoia eta terraza. 688 710 916.

Alokairuan

Pisu bat epe luzerako alokatu nahi dugun bikotea gara. Lan egonkorrekin. 611621181.

Alokairuan hartzeko etxe baten bila nabil Usurbilen. 622925562

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentea da, urriaren 30erako beharko nuke: 605 142 943.

Neska kaudimenduna, mas-kotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta

erroladatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Aginagan, Elutx kalean 30 m² garaje itxi bat salgai. 629460966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209

Garaje marra bat salgai Puntapax kalean, BM parean, 18 m². 18:000 euro. 687 348 223.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburueta-rako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jatetxean. 666 671 444

Zaintzaile bat behar dugu, eguneko lau ordu, Eusko Jaur-laritzaren zaharrak zaintzeko titulua duena eta euskalduna dena. 943 000 333.

Zerbitzaria behar da Artzabal-en. 3 astetik behin asteburua jai. 30 orduko lanaldia. 943 36 91 39.

Olarrondo jatetxean zerbitzaria behar dute astebukaereta-rako. Eguerdian lan egiteko. 626 686 036.

Txapeldun jatetxean zerbitza-

riak behar ditugu jangela eta barrarako. Euskalduna izatea baloratuko da. 669 527 452.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Umeak zaintzeko prest dagoen gazte euskalduna. Jada umeekin esperientzia badaukat. Intersatuak: 688 73 43 44

Margoketa lanetan, altzariak zaharberritzen 30 urteko esperientzia. 626 10 70 76.

Erizain laguntzailea naiz eta pertsona helduak zaintzeko edo garbiketarako lan egiteko lan bila nabil. Orduka, gauak edo astebukaerak interna moduan aritzeko disponibilitatea daukat. 672 587 671

Umeak zaintzeko prest. 695 184179/anescoane@gmail.com

Hotel, jatetxe, soziedade edo etxeetako garbiketarako lan egiteko prest: 671763558

Adinekoak zaintzen esperientzia eta gomendioak ditut. Intersatuok idatzi edo deitu hona. jaqucamilo_1230@hotmail.com / 671 199 489

Goizetan bulegoak eta etxeak garbitzeko, etxeak lanak edo haurrak zaintzeko eskaintzen naiz. Erreferentzia oso onak dauzkatz. 688 715 958

Emakume arduratsua orduka edo egun osoz, etxeak lanetan edo helduen zaintzan aritzeko prest. 604 246 436

BESTELAKOAK

San Estebanen (Zabale inguruan) betaurreko graduatu batzuk aurkitu ditut. Galdu dituenak Udaltzainetan dauzka jasotzeko.

Txerriak salgai. Apote bat eta 9 zerrama dauzkagu salgai. 6/7 hilabetetako bost txerrikume ere bai. 607 668 603 (Joxe Cruz)

Udaberri Txapelketa**Maiatzak 13, ostirala**

18:30etan hasita, Usurbilgo frontoian:

■ Alebin 1. maila: Pagazpe (Manterola-Illarremendi)-Ataun 2

■ Infantil 2. maila: Pagazpe (Jauregi- Indakoe-txea)-Behar Zana

■ Infantil 1. maila: Pagazpe (Alejo- Errasti) Ilunpe 4

Futbol partidak**Haranen****Maiatzak 14, larunbata**

■ 10:30 Infantil mutilak: Udarregi Usurbil FT-Euskalduna SD.

■ 15:30 Erregionalak: Usurbil FT-Asoleus CF

■ 17:45 Preferente neskak: Usurbil FT-Dunboa Eguzki CD

Maiatzak 15, igandea

■ Futbol Eskola 2011: 11:00-12:00 Ostadar-Beasain 12:00-13:00 Usurbil-Beasain

Eskubaloit partidak**Oiardon****Maiatzak 14, larunbata**

■ 17:00 Senior mutilak, Gipuzkoako Kopa: Usurbil K.E-Urola Laztimendi

■ 18:45 Jubenil mutilak, Gipuzkoako Kopako finalerdia: Usurbil K.E.- Zarautz

Goardiako farmaziak

Osteguna 12 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 13 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 14 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 15 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Astlehena 16 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteartea 17 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteazkena 18 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Osteguna 19 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 20 GANDARIAS-URIBE Iñigo Lioila 9. Lasarte

Larunbata 21 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 22 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Agenda maiatza

13 ostirala

- **Txikidantza DJGorkaMendirekin eta haurrentzako jolasak.** 18:00-20:30 artean, Santuenean.
- **Zallek taldearen kontzertua.** 23:00etan Sutegin. Sarrerak 5 eurotan usurbilkultura.eus plataforman.

14 larunbata

- **Zubietako erraustegira martxa.** 11:00etan Lasarteko Okendo plazatik. 10:15ean Usurbilgo frontoitik oinez Lasartera.
- **Liesbeth Schlumberger hegoafrikarraren organo kontzertua.** 20:00etan Salvatore Elizan, Organoaren Lagunak-en eskutik.

15 igandea

- **Emakumeen Itzulia.** Goizean N-634 errepidetik.
- **San Ixidro Eguna.** Egun osoko egitaraua: trikitilariak, hamaiketakoak, aizkolariak, bertsolariak, bertsotzariak, harri-jasotzaileak...

San Ixidro eguna igandean

Bi urteko osasun krisialdiak eragindako etenaldiaren ostean, bueltan datoz hainbat ekimen udaberri honetan; lerrootakoa tartean. Maiatzak 15 izango ditu igande honetan, San Ixidro eguna. Garai batean bezala, ospakizunaz giro turiko goiz eta arratsaldea biziko dugu. Denetarik ekintzak antolatu ditu Alkartasuna Baserritarren Kooperatibak, Udalaren babesarekin.



Herri kirolak antolatu dituzte, bueltan datorren San Ixidro Egunaren baitan.

Maiatzak 15 igandea

- 11:00 Trikitilariak.
- 11:30 Hamaiketakoak Koldo Huegun herriarraren eskutik: Luma Gorri oilaskoak.
- 12:30 Aizkolarien arteko neurketa: Arrilla anaiak.
- 13:00 Bertsolariak: Beñat Gaztelumendi eta Eli Pagola.
- 14:00 Trikitiaz giro turiko bertsotzariak.

ria Artzabalen.

- 18:00 Herri kirolak: -Harri-jasotze saioa: Lur Errekondo Sola eta Ane Zinkunegi Hernandez herriarraren estreinako saioa. Izeta IV eta Izeta V
- Antolatzailea: Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba.
- Babeslea: Usurbilgo Udala.

Umorearen inguruko solasaldia, atzeratua

“Umorea disekzio-mahaian: feminismoa eta euskaratik” solasaldia Ane Labaka bertsolariarekin eta Idoia Torregarai umoregilearekin maiatzaren 12rako zegoen iragarria, baina aste hasieran antolakuntzak ohartarazi duenez, ekainaren 9ra atzeratu dute hitzordua. Ane Labakak ondutako

“Algara mutilatuak” lana oinarri, umorea egiteko moduez eta haien ondorioez ariko dira, “ikuspegi feministaren optika argigarritik”, Usurbilgo Udalak hurrengo hilabete hasierarako iragarria duen ekitaldian. Hitzordurako izen-emateak zabalik jarraituko du, usurbilkultura.eus plataforman.

Datozenak

Energia berriztagarriak hizpide

Anerreka ingurumen elkarteak “energia berriztagarriak S.A.: kapitalaren ereduaren aurreko azterketa eta alternatibak” hitzaldia antolatu du (gaztelaniaz) maiatzaren 18an 18:30etan Sutegin. Pablo Lorente ariko da hizlari lanetan.

Bertsotzari saioa sardoz eta euskaraz

Sardiniako inprobisatzaileak Alaia Martin eta Julio Soto bertsolariarekin bilduko dituen “Improvisa un antiga poesia” ikuskizuna maiatzaren 19an 19:00etan Sutegin. “Sardoz eta euskaraz, bat-bateko bertsotzariak” eta “kontakizuna, musika eta irudiak uztartuko dira ordu eta erdiko emanaldian”. Sarrerak aurrez salgai bertsosarrerak.eus atarian. 2 txartel zozketatuko ditugu maiatzaren 17a baino lehen elkarte@noaia.eus-era “Zozketa, Sardiniako kantu inprobisatua” dioen email bat bidaltzen duzuenon artean. Irabazleak sarrerak takilan izango ditu.

Txalaparta festa

Jexux Artze K.E.-k maiatzaren 26tik 28ra antolaturiko zikloaren baitan, hilaren 28an bazkaria Artzabalen. Txartelak 18 euroan salgai Artzabalen eta Lizardin, maiatzaren 24ra arte.





Usurbilgo "Herriko Etxea" Sari Nagusia

Sari banaketa Usurbilen burutuko da, 2022ko maiatzaren 22an Usurbilgo SAGARDO EGUNEAN

Euskal Herriko edozein sagardogile edo muztioegilek parte har dezake, lanbide duenak edo ez, sagardotegietakoak bezala etxerako egiten duenak ere.

Sariak honoko hauek izango dira:

- LEHENENGO SARIA: Usurbilgo Herriko Etxea Saria diren 800€ eta Sariaren Ziurtagiria
- BIGARREN SARIA: Alkartasuna Kooperatibaren Saria, 250€ko txartela sagardogintza materialetan gastua egiteko eta Sariaren Ziurtagiria
- HIRUGARREN SARIA: Alkartasuna Kooperatibaren Saria, 100€ko txartela sagardogintza materialetan gastua egiteko eta Sariaren Ziurtagi

oinarri guztiak alkartasuna.eus web orrialdean



Kanpaldiak uztaila eta abuztuan

astelehenetik-ostiralera

09:00-14:00

8-16 urte bitartean

USURBILEN!



erreserbak: 666 607 447